

GASCOK GEHIENGO AURRERAZALEA ESPERO DU DONOSTIA ZUZENTZEKO

Donostiako alkategai Ernesto Gasco sozialista “datozen lau urteetan Donostia zuzentzeko gehiengo aurrerazale” bat osatzaren alde agertu da. Gascok Amara Berri auzoko Celestino Martiarena eta Luis Iglesias parkean aurkeztu ditu bere proposamenak, eta, adierazi duenez, “duela bi aste, hiria indar aurrerazaleek zuzendu behar zutela adierazi zuten donostiarrek hauteskundeetan. Donostia berriz ere gizarte- eta lurralde-kohesioa bermatuko duen aurrerapen-hiria izan dadin nahi dugu. Horixe da sigletatik haratago eskaintzen dugun hautagaitza”.

Illo horretan, alkategai sozialistak gaineratu duenez, “Donostiako aurrerapenaren bermea gara, eguneroko bizitza kudeatzera mugatzen diren alderdi kontserbadore eta tradizionalen aurrean”.

Gascok adierazi du datorren legegintzaldiak auzoena izan behar duela. “150 proposamen baino gehiago ditugu Donostiako auzo guztietarako. Batzuk tamaina handiko proiektuak dira, eta beste batzuk, berriz, egunerokoagoak, auzoetako azpiegiturak hobetzera bideratuak, hala nola peatonalizazio berriak, aparkalekuak, alokairu-erregimeneko etxebizitza sozialen programa berriak eta tokiko merkataritza babesteko programak”.

Zehazki, Amara Berri auzoari dagokionez (“hiriko jendetsuena”), maiatzaren 26ko hauteskunderi begira defendatuko dituzten hainbat jarduketa aipatu ditu Ernesto Gascok.

“Amararako hogeit bat jarduketaren artean, Antso Jakitunaren hiribidearen birmoldaketa azpimarratu beharra dago, baita Metroko igarobideari esker trenbide-lautada lurperatzean Errondon sortuko diren aparkaleku-plaza eta atsedeen-eremu berriak ere”.

Amararako beste proposamen batzuen artean, honako hauek azpimarra daitezke: Pio XII.aren plazaren eta Karlos I.aren hiribidearen ingurunearen hobekuntza, kafetegia izango duen zerbitzu publiko bat Araba parkean, Francisco Escudero Erdi Mailako Kontserbatorioaren kokapena Familia Santuaren kalearen inguruan, etxebizitza-zuzkidura berria Autonomia kalearen amaieran (Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan), Ikasketen plazaren eta Olaeta plazaren birmoldaketa, Gregorio Ordoñez kalearen peatonalizazioa aparkaleku-plazak murriztu gabe, kultur etxe berria Anoeta berrian edo gobernu-ordezkariordeztaren eraikinean, Gasca kiroldegia ordeztuko duen erabilera anitzeko pabiloi berria Anoetan, eta erabilera berriak Illunben.

